

MEMORIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

MEMORIA



2

0

1

8



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua
01008 VITORIA-GASTEIZ
avpd@avpd.eus
www.avpd.eus

MEMORIA

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urtero

LG: VI 312-2006

Lan hau Creative Commons da



Aitorpena (by)

Aske zara:

- lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesak duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	7
3.	AHOLKULARITZA EGINKIZUNA.....	9
4.	KONTROL JARDUERA.....	18
5.	EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	36
6.	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA KOMUNIKABIDEETAN ETA INTERNETEN	51
7.	EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	58
8.	BARNE KUDEAKETA.....	62
	AHOLKULARITZA ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO ZIFRAK	71
	AURREKONTU EXEKUZIOARI BURUZKO DATUAK.....	73





1. AURKEZPENA

Aurtengo jardueren memoria hau egin eta onartzeko, eta Eusko Jaurlaritzari helarazteko arrazoia da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legearen berariazko agindua betetzea; bai eta gainontzeko kontrol agintaritzei ere jakinaraztea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 59. artikulua agintzen duenarekin bat. Era berean, modu bat da Bulegoak 2018an gauzatutako jardueren berri emateko modu sistematizatuan, euskal herritarrei eta Euskadiko administrazio eta erakunde publikoei; hain zuzen ere, ahalik eta modurik eraginkorrenean ziurtatzeko pertsona guztiok baliatu dezakegula, bakoitzaren eskumen esparruan, norberaren pribatutasuna babesteko oinarritzko eskubidea.

2018ko Memorian jaso ditugu Bulegoak, helburu horiek lortzeko, burutu dituen jarduera garrantzitsuenak; eta lan guzti hori hainbat ataletan islatuta dago bertan, gaika sailkatuta eta kronologikoki antolatuta, hobeto adierazteko Bulegoko unitate bakoitzak urtean zehar egindako jarduera guztien segida.

Bestalde, maiatzaz geroztik indarrean dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 ERREGELAMENDUA, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta horregatik, 2018ko Memoriaren zenbait ataletan Erregelamendu aurreko eta osteko egoeraren balantze moduko bat gehitu da, azaltzeko nola ari diren betetzen Erregelamenduak Bulegoari ezarri dizkion betebeharrak.

Bulegoaren zereginei erreparatzen badiegu, hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu du parte, Erregelamendu Orokorrek aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei eta pribatutasunaren balioaren gaineko kontzientzia publikoa hedatzeko.

Azkenik, esan nahi dugu aurten ere 2018ko Memoriak jaso duen Bulegoaren lan guztia, bai helburu aholku-emailearekin egindakoa bai kontrol agintaritza den aldetik egindakoa, asmo garrantzitsu batekin egin duela, hau da, benetako oreka lortzea datuak babesteko oinarritzko eskubidea eta hori bezain garrantzitsuak diren beste eskubide batzuk egikaritzean; kontuan izanda teknologikoko gizarte aurreratua dela gurea, eta maiz jartzen duela atezuan eskubideen arteko oreka.



Espero dugu 2018ko Memorian irakurleei eman diegun informazioa egokia izatea bakoitzak ikusteko zenbateraino lortu den Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren helburu behinena gauzatzea, hau da: bermatzea, Bulegoaren eskumenen esparruan modu ponderatuan ezartzen dela datu babesari buruzko araudia, benetan gauzatu dadin euskal herritarren pribatutasunerako eskubidea, Euskadiko administrazio publikoekin dituzten harremanetan.

2019ko ekaina

Margarita Uria Etxebarria

Zuzendaria



2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 14. artikulua xedatutakoren arabera, Datuak babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailea DBEBren zuzendariari aholkua ematen dion kide anitzeko organo bat da, eta 2/2004 legearen 16. artikulua xedatzen du nortzuk osatzen duten: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, Euskadiko toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bi, bata informatika esparrukoa eta bestea oinarritzko eskubideen esparrukoa.

2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN KIDEAK DIRA HONAKOAK

2018ko abenduaren 31n honako hauek osatzen zuten Kontseilu Aholku-emailea:

- **Aintzane Urquijo Sagredo andrea.** Santurtziko alkatea. Euskadiko toki erakundearen ordezkaria.
- **Montserrat Auzmendi del Solar andrea.** Eusko Legebiltzarreko legelari nagusia.
- **Nieves Martínez de Antoñana Blanco andrea.** Lehendakariaren Araubide Juridikoaren zuzendaria.
- **Mikel Ulazia Etxabe jauna.** GFaren datuak babesteko ordezkaria. Foru aldundien ordezkaria.
- **Eduardo Jacob Taquet jauna.** Lehendakaria. Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- **Iñaki Esparza Leibar jauna.** Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 6.6.b) artikuluan ezarritakoarekin bat, DBEBren idazkari nagusi Manuel Valín López jauna da Kontseilu Aholku-emailearen idazkaria.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 7. artikulua 8. zenbakian ezarritakoarekin bat, DBEBren zuzendari Margarita Uria Etxebarria andrea Kontseilu Aholku-emailearen saioetan egoten da, hitzarekin, baina borotik gabe.

Kontseilu Aholku-emailearen lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.



2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak honako bilera hauek egin ditu 2018an:

- 2018ko urtarrilaren 9an egin zuen 2017ko bigarren ohiko bilera, Kontseilu Aholku-emaileak aho batez proposatuta. Bertan honako gaiak landu zituzten: Kontseilu Aholku-emailearen lehendakari berria izendatzea, 2018ko aurrekontuak, abian dauden lege erreformak eta egitura aldaketak eta hiruhileko jarduerak.
- 2018ko ekainaren 14an ohiko bilera egin zen. Bertan honako gaiak aztertu zituzten: 2017ko Memoriaren gaineko informazioa, izapidetze fasean zeuden lege-ekimenak, datuak babesteko ordezkariak eta bigarren hiruhileko jarduerak.
- 2018ko abenduaren 20an ohiko bilera egin zen. Bertan honako gaiak aztertu zituzten: 2019ko aurrekontuak, araudi aldaketak, lanpostu zerrenda berria, prestakuntza jarduerak eta udako ikastaroa.



3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA

2018a urte garrantzitsua izan da datu pertsonalen babeserako. Maiatzaren 25az geroztik, zuzenean ezarri beharrekoa da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB)Erregelamendua. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren xedea da bermatzea Europar Batasuneko herritar guztiek babes bera izatea datu babesari dagokionez, bai eta datuen babesa errealitateari eta Interneteko erronkei egokitzea ere.

Erregelamendu Orokorra zuzenean ezarri beharrekoa izateak zera dakar, barneko araubidetik baztertzea Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen zenbait manu, Erregelamendu Orokorrekin bateragarriak ez direnak hain zuzen ere.

Bestalde, Erregelamendu Orokorrek ez du baztertzen barneko zuzenbidearen esku hartzea, eta berrogeita hamasei aldiz geroko garapenari lotzen zaio, ordenamendu nazionalak garatu edo osatu ditzaten. Barne ordenamendua ez zen egokitu Erregelamendu Orokorra 2018ko maiatzaren 25era arte; horregatik, bien bitartean Erregelamendu Orokorra aplikatu ahal izateko, arau hau onartu zen: 5/2018 Errege Lege-Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako zuzenbidea Europar Batasunak datuen babesaren arloan emandako araudira egokitzeke presako neurriena. Eta indarrean egon zen Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa onartu arte.

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indarrean dago 2018ko abenduaren 7az geroztik. 15/1999 Lege Organikoa ordezkatu du, eta bere xedea da barneko lege ordenamendua Erregelamendu Orokorra egokitzea eta han jasotako xedapenak osatzea. Era berean, herritarren eskubide digitalak ere bermatu nahi ditu; eta, hori lortzeko, titulu berri bat gehitu da (X. Titulua), lege organikoaren proiektuan ez zegoena.

Illo horri jarraituta, badirudi arau esparru berrira egokitu beharko dela Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea; eta segurtasun juridikoaren printzipioak ere aintzat hartuta, horretarako lege berri bat onartu beharko da, 2/2004 Legea ordeztzeko.

Autonomia erkidegoek, datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubidearen gaineko legedia garatzeko eta betearazteko eskumenak dituzte; eta agintaritzak autonomikoei dagokie bermatzea pertsonen pribatutasunerako oinarritzko eskubidea. Horretarako, agintaritzei dagokie, haien jardute eremuan, Erregelamendu Orokorrak



ezarritako eginkizun eta ahal guztiak egikaritzea (ahal zuzentzaileak eta ikerketa, baimen eta kontsulta ahalak).

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, arau esparru berria onartuz geroztik, areagotu egin du euskal administrazio eta erakunde publikoak prestatzeko eta sentsibilizatzeko eginkizuna, indarra jarritz lege arau esparru berri horrek ezartzen dizkien betebeharretan. Era berean, gai horien inguruko aholkularitza ere eskaini du, bere eginkizun aholku-emailea egikaritzeko; horretarako, esparru honetan hartzen diren erabakiak egokiak izan daitezen lagunduz.

3.1. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEBk herritarrentzat eta gainontzeko administrazio publikoentzat gertukoa eta eskuragarria den administrazio eredua izan nahi du; eta, horretarako, hainbat komunikazio-kanal jarri ditu horien denen esku, informazioa edo irizpide juridikoa ala teknologikoa eskatu nahi badute, erabil ditzaten, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea uki dezakeen edozein gairen gainean galdetzeko. 2018an Agentziak 1000 aholkularitza eskabide inguru jaso zituen telefono bidezko, zuzeneko arreta eta arreta telematiko bidezko kanalen bitartez. Kontsulta gehienak telefono bidez jaso ziren, bigarren tokian posta elektronikoz jasotakoak daude, eta hirugarren tokian bertatik beratarazuzuzenean egindakoak.

Batez ere herritarrek dira kanal anitzeko arreta zerbitzuaren erabiltzaileak (% 63), segidan euskal administrazio publikoak datoz (% 32). Enpresek erabiltzen dute gutxien (% 5).

Kanal anitzeko sistema erabilita, erabiltzaileak berehala jakin dezake Agentziak zer uste duen, pribatutasuna dela eta, erabiltzaileari interesatzen zaizkion gaien gainean.

Agentziak, kanal anitzeko zerbitzutik eskuratzen duen informazioa, ondorio garrantzitsuak ateratzeko baliatzen du, eta herritarrei zerbitzu hobea emateko erabiltzen du.

2018an ere datu-lagatzea edo datuak komunikatzea da herritarrek gehien kezkatzen dituen datu tratamendua; eta kezka areagotu egiten da datuak argitaratzen direnean, horrek eragin kaltegarri handia ekar diezakeelako pertsonen pribatutasunari.

Bestalde, argi ikusten da jendeak gero eta barneratuagoa duela datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen funtsa eskubide horiek egikaritzeko aukeran dagoela. Izan ere, Agentziak kontsulta asko jaso ditu informazio pertsonala eskuratzeko eskubidearen gainean, bai eta laguntza eskabide ugari ere Interneten norbere datuak ezerezteko eta datu horiei aurka egiteko eskubideak behar bezala erabiltzeko (ahaztua izateko eskubidea). Beraz, herritarrek gero eta argiago dute norberari buruzko informazioaren gaineko benetako kontrola guztiz lotuta dagoela



eskubideak egikaritu ahal izatearekin; izan ere, eskubide horiek baliatu ahal izatean datza azken finean oinarritzko eskubidea.

Erregelamendu Orokorrak lortu nahi du erakundeek, publikoek nahiz pribatuek, konpromiso handiagoa izatea pertsonen pribatutasunarekin; eta horrek berez ez dakar ardura handiagoa, baina eskatzen du datu pertsonalen babesaren kudeatzeko orain arteko modua aldatzea. Esate baterako, erantzukizun proaktiboaren printzipioak agintzen die erakundeei Erregelamendu Orokorrak ezarritako printzipioak, eskubideak eta bermeak bete ahal izateko behar diren neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartzeko; eta, hori lortzeko, Erregelamendu Orokorrak hainbat neurri aurreikusten ditu (pribatutasuna diseinutik abiatuta eta lehenetsita, tratamendu-jardueren erregistro bat kudeatzea, arriskuen araberako segurtasun neurriak ezartzea, datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketak egitea, datuak babesteko ordezkaria izendatzea –administrazio publikoek nahitaez izendatu beharko dute–, segurtasun urraketen berri ematea...).

Hain zuzen ere, Erregelamendu Orokorraren ikuspegi berri horrekin lotuta dago Agentziak jasotako eskabide gehienak euskal administrazio publikoek egindakoak izan direla, prestakuntza eta aholkularitza eskatuz. Aurrerantzean arduradunek eredu berri bat erabili beharko dute, hau da, kontuak emateko sistema eta proaktibitatea oinarri dituen eredua erabili beharko dituzte tratamenduaren helburuei eta bitartekoei buruzko erabakiak hartzeko. Baina, Erregelamendu Orokorrak ez duenez zehatz esaten nola egion behar den, tratamendu arduradunek eta eragileek zalantza asko dituzte, eta, ondorioz, Agentzian etengabe ari gara prestakuntza eta aholkularitza eskabideak jasotzen.

Azkenik, azpimarratu behar da handitzen ari dela bideo-zaintzako gailuak erabiltzeko joera bai esparru publikoan bai pribatuan, askotariko helburuetarako.

Zentzu horretan nabarmentzekoa da abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organiko berriak berme osagarriak agintzen dituela bideo zaintza eta grabazio gailuak erabiltzeko, bai eta geolokalizazio sistemak erabiltzeko ere, lan esparruan (89. eta 90. artikulua).

3.2. IRIZPENAK


DBEBk irizpen bidez ebatzen ditu datu babesari buruz jasotzen dituen galdera konplexuak. Agentziak aholkularitza eginkizuna burutzen du otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 n) artikulua xedatutako aholkularitza eginkizuna betetzeko, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:

- Kontsultaren gaiak 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategietan jasotako datu pertsonalen tratamenduei buruzkoa izan behar du.



- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburuaren deskribapena egin beharko dela, eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.

2018an zehar udalek egin zituzten kontsulta gehienak, eta udalen atzetik foru aldundiek, eta azkenik EAEko administrazio orokorrak. Horiez gain,



beste entitate eta erakunde publiko eta herritar batzuek ere jo zuten Agentziara, Agentziaren irizpidea eskatzeko datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin lotutako hainbat gaitan.

Kontsulten artean aipagarrienak dira administrazio publikoek egiten dituzten tratamenduak legitimatzen dituzten oinarriei buruzkoak. Oinarri ohikoena da tratamendua beharrezkoa izatea lege izaerako arau batek ezarritako eginkizun bat betetzeko interes publiko baten indarrez [Erregelamenduaren 6.1 e) artikulua] edo lege-betebehar baten indarrez [Erregelamenduaren 6.1 c) artikulua]. Adostasuna [6.1 a) artikulua] ezin izango da erabili oinarri juridiko moduan, tratamendu-arduraduna den administrazioaren eta interesdunaren arteko egoeretan orekarik ez badago; eta administrazioek ezin izango dituzte legitimatu tratamenduak interes legitimoaren izenean; kontuan hartu beharko du, ordea, hirugarrenek aipatzen badute interes legitimoa [6.1 f) artikulua].

Edozelan ere, administrazio publikoek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduek Erregelamendu Orokorraren printzipioak bete beharko dituzte, esate baterako, datuen minimizazioarena [5.1c) artikulua] eta gardentasunarena [5.1 a) artikulua].

3.2.1. Irizpenak

Irizpen adierazgarrienak eskuragarri daude Agentziaren web orrian (www.avpd.eus).

- Diskoteka bateko bezeroen NANEi argazkiak ateratzearen legezkotasuna (CN18-001)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez du eskumenik izaera juridiko pribatuko pertsona fisikoek edo entitateek egindako datu pertsonalen tratamenduen gainean.



- **Datuak lagatzea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari (CN18-002)**

Administrazio kontsulta-egileak, enplegatzaile publikoa denez, galdetu dio Agentziari jakin nahi duela ea zilegi den Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari ematea zenbait langile publikoren helbideen datuak, bueltan etorri direlako langile horiei bidalitako kartak. Karta horietan haien lan-bizitzari buruzko datuak zeuden. Era berean, Diruzaintzak uste du “komenigarria dela” edukitzea langile horien telefono mugikorraren zenbakiak, “langileak zuzenean Internet bidez jasotzeko bere lan-bizitza eta kotizazio-oinarriak”.

DBLOren 21. artikulua baimena ematen du administrazio publikoen artean datu pertsonalak komunikatzeko interesdunen adostasunik gabe. Baina, kasu honetan ez du balio, administrazioen arteko datu komunikazioa ez delako egingo eskumen berberak edo gai berari buruzko eskumenak gauzatzeko.

Horregatik, esparruko legedira jo behar da jakiteko ea eskatu duten datu komunikazioa legezkoa den: Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina (GSLOTB) eta Gizarte Segurantzaren Enpresak Inskribatzeari, eta Langileen Afiliazioari, Altei, Bajei eta Datu-aldaketei buruzko Erregelamendu Orokorra onetsi duen urtarilaren 26ko 84/1996 Errege-dekretua.

Eta araudia ikusita, administrazio publiko kontsulta-egileak nahitaez jakinarazi behar du helbidea, dakienean aldatu egin dela langile publikoa alta eman zuenean edo geroago adierazi zuen helbidea.

Langile publikoen telefono mugikorraren zenbakiaren datua eskatu dutela eta, esan behar dugu interesdunen adostasuna beharko duela administrazio kontsulta-egileak, datu pertsonal hori komunikatu ahal izateko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari.

Edozelan ere, administrazio kontsulta-egileak, administrazio publikoen arteko lankidetzaren printzipioarekin bat, esan egin ahal die ukitutako langile publikoei Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak haiekin harremanetan jarri nahi duela lan-bizitzari buruzko informazioa helarazteko.

- **Partikular batek aurkeztutako irudiak tratatzea udal batek zehapen prozedura bat hasteko (CN18-003)**

Usteko arau-hauste administratibo bat argazki bidez antzematea eta gero argazkia udalari lagatzea ondo ezkontzen da tratamenduaren arduradunaren interes legitimoarekin. Baina, informazioa hori gero udalak tratatu ahal izateko, ezin da interes legitimoa baliatu, botere publikoak egikaritzea baizik.

- **Udal batek ur partzuergoari zenbait datu lagatzea, tasa batzuk kobratu ahal izateko (CN18-004)**



Ur partzuergo batek, tasa batzuk kobratu ahal izateko, udal bati eskatutako datu lagatzea zilegi da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 93.1 artikulua eta DBLOren 11.2 a) artikulua arabera.

Edozelan ere, udalak datuak lagatzeko orduan eta gerora egiten duten datu tratamenduan ere, bete egin beharko da Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 4. artikuluko 1. eta 2. zenbakiek xedatzen duten datuen kalitatearen printzipioa. Kalitatearen printzipioak Erregelamendu Orokorren 5.1 b) eta c) artikuluetan du isla. Erregelamendua nahitaez ezarri beharrekoa da zuzenean 2018tik aurrera, transposizioz egin beharrik gabe.

▪ **Ekitaldi publiko batean hartutako argazkiak grabatzea, erakustea eta argitaratzea (CN18-005)**

Ez da interesdunen adostasuna eskatu beharrik izango, ekitaldi publikoetan irudiak grabatzeko eta hedatzeko, irudiak modu osagarrian agertzen badira. Aitzitik, gertakari edo jazoera publiko baten gaineko informazio grafikoa erabiltzeko, bertan ageri diren pertsonen irudia ez bada osagarria, eskatu egin beharko da interesdunen adostasuna edo horien ordezkariena.

▪ **Udal zerbitzu bateko langileen datu identifikatzaileak sartzea zerbitzua emateko hitzordua jasotzen duten agirietan (CN18-006)**

Udal bateko zerbitzu bateko langileek galdetu diote DBEBri ea udalak legitimaziorik duen bertako langileen datu identifikatzaileak (izena eta abizenak) jartzeko zerbitzuaren erabiltzaileei bidaltzen dizkieten hitzorduetan. Langileek diote ez dela beharrezkoa haien datu pertsonalak agerian uztea zerbitzua emateko, segurtasuna arriskuan jartzen delako, eta, gainera, sarritan hitzorduan ageri den langileak barik beste batek atenditzen duelako erabiltzailea.

Udalaren borondatea herritarrekiko harremanetan gardentasunez jokatzeko bada ere, Udalak aztertu egin beharko ditu langileek alegatutako arrazoiak, langileek azaltzeko zergatik egin nahi dioten aurka haien datuak tratatzeari; eta gatazkan dauden eskubide biak aztertu beharko ditu.

Edonola ere, udal zerbitzuen erabiltzaileek aukera dute baliatzeko haien intereseko prozedura bat izapidetzen ari den pertsona identifikatzeko eskubidea (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikulua).

▪ **Practicumeko ikasleen adostasuna Delitugile Sexualen Erregistro Nagusiko egiaztatzea eskatzeko (CN18-007)**

Nahitaezkoa izan behar da ikastetxeetan praktikaldiak egiteko onartuak izatea nahi badute, unibertsitateko ikasleek aldeztu aurretik egiaztatzea epai irmo bidez sekula kondenatuak ez izana sexu-askatasunaren eta uki-gabetasunaren aurkako delituen batengatik; eta, horretarako, Delitugile Sexualen Erregistro Nagusiko egiaztatze negatiboa aurkeztu beharko dute edo adostasuna adierazi askatasun osoz, organo



eskumendunak eska dezan informazioa, abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuaren 9.2 artikulua xedatutakoaren arabera.

▪ **Unibertsitateko ikerketa talde bati azterketak lagatzea (CN18-008)**

Legitimatuta dago Hezkuntza administrazioak, ikerketa helbururako, azterketak lagatzea UPV/ EHUko ikerketa talde bati, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (aurrerantzean Erregelamendu Orokorra) 6.1. e) artikulua legitimatzen du, honakoekin batera: Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legea eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legea.

Edonola ere, datu horiek ikerketa helburuarekin tratatzeko, Erregelamendu Orokorren 89. artikuluko bermeak bete beharko dira.

▪ **Biztanleen udal Errolda erabiltzea omenaldi bat egiteko (CN18-009)**

Erroldako datuak omenaldi bat egiteko erabiltzea legezko tratamendua da datu pertsonalak babesteari dagokionez, baldin eta tratamendua ondo ezkontzen bada legez udalerriek esleitura duen eskumenen batekin.

▪ **Administrazio publiko bereko bi sailen artean datuak lagatzea (CN18-010)**

Sailen artean datuak lagatzeko, Erregelamendu Orokorren 6. artikulua xedatzen duena bete beharko da edo premiamenduzko bideari buruzko araudian datorrena, nahitaezkoa delako bide judizialean adostutako kostuak ordainarazteko. Baina, zerga alorrean ondorioak dituzten datuen izaera erreserbatua dutenez, Ogasun Saileko datuak komunikatu ahal izateko, eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzeko, nahitaez bete beharko da Zergei buruzko Foru Arauko 92.1 artikulua salbuespenetako bat.

▪ **Elkargo profesional bateko bazkideei aldizkari ofiziala bidaltzea (CN18-011)**

Elkargo profesional bateko bazkideei aldizkari informatiboa bidaltzea elkargoaren eta elkargokideen arteko harreman juridikoa bideratzeko datu tratamendu bat da, eta ez da adostasunik adierazi behar horretarako, nahiz eta aldizkariak zenbait entitatearen publizitatea eduki.

▪ **Mankomunitate bateko udalek mankomunitateari datu pertsonalak lagatzea (CN18-012)**

Eskualdeko mankomunitatea legitimatuta, dago tratamenduaren arduraduna delako, erabiltzeko zerbitzuaren erabiltzaileen datuak, behar-beharrezkoak dituztelako hiri-hondakinen gaikako bilketaren zerbitzua arautzen duen Ordenantzak esleitzen dizkion ahalak egikaritzeko.



- **Zenbait laguntza eta diru-laguntza kudeatzeko, beste administrazio batzuei zerga datuak komunikatzea (CN18-013)**

Zenbait laguntza kudeatzeko, beste administrazio batzuei zerga datuak komunikatzeko lege-babesaren oinarria interes publikoa izan daiteke, baldin eta lege mailako arau batean zehaztuta badago. Batzuen adostasunak ez du baimentzen adostasunik adierazi ez duten beste pertsona batzuen datuak tratatzea.

- **Informazio espedienteetan, diziiplina espedienteetan eta langileak hautatzeko prozeduretan dauden datuak komunikatzea (cn18-014)**

Hautaketa prozesuetan edo aurretiazko informazioetan dagoen informazioa eskuratzeko eskabideetan, nahitaez hartu beharko da kontuan eskatzailearen izaera (interesduna ote den, parte hartzailea delako; legitimazio berezi baten titularra ote den, legebiltzarkidea izateagatik; interesduna ote den, salatua edo ikertua delako), nahiz eta kontuan hartu beharko den zein informazio mota eskatu duten eta informazioa eskuratzeko eskubideari ezargarriak zaizkion mugak.

3.3. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoei buruzko derrigorrezko txostenak, 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko proiektuen gaineko txostenak, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapenei eta hitzarmenei buruzko txostenak, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.

2018an bi legezketasun txosten egin dira.

- Trafiko istripuetako biktimen erregistroa sortzea eta arautzeari buruzko dekretuaren proiektua.
- 2018-2022 Aldirako Euskal Estatistika Planari buruzko Legearen aurreproiektua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, legezketasun txosten honen bidez azpimarratu du Erregelamendu Orokorrak lege araubide berria ezarri duela datu pertsonalen kategoria bereziak tratatzeko, eta kategoria guztientzat bera da. Baina, Bulegoaren ustez ez da bateragarria Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikei buruzko Legearen 10. artikulua aldaketarekin, ez behintzat aurreproiektuko azken xedapenetatik lehenengoan ezarritako baldintzen arabera.



3.4. AHOLKULARITZA BILERAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazio eta erakunderekin, eta aholkularitza eman diegu, haien eskumen esparruan burutu nahi dituzten jarduerak oinarritzeko eskubideak izan dezaketen eraginaren gainean eta onartu nahi dituzten erregulazioen gainean. Azpimarratu nahi dugu Agentziak egiten duen aholkularitza lana ez dela egiten bakarrik administrazio bakoitzak dituen kezkak argitzeko, datu babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko konpromisoa betetzeko baizik.

Horrekin lotuta, 2018an Agentziako Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritzak honako bilerak egin ditu:

- Bilera bat Lan Harremanen Kontseiluarekin: 2018ko maiatzaren 25az geroztik, Erregelamendu Orokorren ezarpenak dakartzan betebeharrei buruzko informazioa.
- Bilera bat Arabako Foru Aldundiarekin: Hitzarmena Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren, UPV/EHUren, eta Gogoraren artean.
- Bilera bat LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin: datuen kategoria berezien tratamenduak zerbitzu horrek izapidetutako prozeduretan.
- Bilera bat Artium Fundazioarekin: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzea.
- Bilera bat Bideo-zaintza Batzordearekin: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren aplikagarritasuna polizia bideo-zaintzan.
- Bilera bat Osakidetzarekin: historia klinikoetako datuen tratamendua.
- Bilera bat Osakidetzarekin: informazio publikorako irispidea.
- Bilera bat Izenperekin: salaketak Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidaltzea, haren eskumenekoak izateagatik.
- Bilera bat Bizkaiko Foru Aldundikoa Nekazaritza Sailarekin: zuhaitzak botatzeko baimenen datuak lagatzea udalei.

3.5. KONTROL-AGINTARITZEN BILERAK

- Datuak Babesteko Espainiako Agentzia - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa: 2018ko maiatzaren 25a baino lehenagoko portaera arau-hausleei ezarri beharreko lege araubidea eta datu pertsonalen tratamendua legitimatzen duten oinarriak.



4. KONTROL JARDUERA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol jardura burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio publikoek behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, ahal zuzentzaileak baliatu. Gainera, interesdunek egiten dizkioten babes eskubideen erreklamazioak ebazten ditu, tratamenduaren arduradunaren aurrean eskubide bat baliatu nahi izan eta tratamenduaren arduradunak ez badu behar bezala erantzun.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eginkizun asko eta ahal zabalak esleitzen dizkie kontrol-agintaritzeari, adibidez, ikerketa ahalak eta ahal zuzentzaileak; horretarako, ezar daitezkeen arau-haustea, zehapenak edo jardura zuzentzaileak arautuz.

Bestalde, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. Titulua zehapen araubideari buruzkoa da, eta bertan xedatzen du arau-haustea oso larriak, larriak eta arinak izan daitezkeela, preskripzio-epeak zehazteko ondorioetarako.

3/2018 Lege Organikoak, 15/1999 Lege Organikoak bezala, ez du jasotzen zehapen ekonomikorik administrazio publikoentzat. Beraz, administrazioek neurriak hartu beharko dituzte, portaera okerra eten dadin edo arau-haustearen ondorioak zuzendu daitezen.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra konturatzen da herritarrek tresnak behar dituztela benetan kontrolatu ahal izateko bakoitzak bere informazio pertsonala, eta, horretarako, betiko eskubideei beste berri bi gehitu dizkie: tratamendua mugatzeko eskubidea eta datuak transferitzeko eskubidea.

Horrekin lotuta, ikusten da Agentziak jaso dituen babes eskubideek agerian uzten dutela herritarrek kezkatuta daudela norberaren datuen gaineko kontrola dela eta.

Babes erreklamazioen ebazpenek ukitutako administrazioak lankidetzarako prest agertu dira, eta orokorrean DBEBk ebatzitakoa ondo hartu dute. Horren erakusgarri da administrazioarekiko auzi errekurtsio bi baino ez dituztela aurkeztu.

4.1. ESKUBIDEEN BABESA

2018an % 59 hasi da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztu dituzten babes erreklamazioen kopurua. Administrazioek nahitaez erantzun behar diete eskubideak baliatzeko eskubideei, eta erreklamazio horietako asko onartu ditugu, administrazio publikoek berandu bete dutelako eskatzaileek baliatu duten dena delako eskubidea.

Esan beharra dago eskubidea epez kanpo eta berandu onartzea, oinarritzeko eskubidea urratzea dela. Gainera, administrazio publikoei esan egin behar zaie nahitaez erantzun behar dietela herritarrek baliatzen dituzten eskubideen eskubideei. Administrazio-isiltasuna ez da besterik gabe administrazio jardunbide desegoki bat, urraketa bat delako, hau da, batetik, Administrazio Publikoen Administrazio



Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak agintzen duen “ebatzi beharra” urratzen duelako, eta, bestetik, datu babesari buruzko araudia ere bai.

2018an Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio gehienak izan dira administrazio publikoen fitxategietan dauden datuak atzitzeko eskubideari buruzkoak, batez ere, norberaren historia klinikoa atzitzeari buruzkoak. Horien atzetik historia klinikoko datuak edo polizia aurrekariak ezerezteko eskubideari buruzkoak.

Hona 2018an ebatzitako babes eskeak:

4.1.1. Atzipen eskubidea

▪ Udaltzaingoaren fitxategietan dauden datu batzuk atzitzea (ET17-012)

Eskubidea onartu egin da alderdi formaletik, baina ez alderdi materialetik, hain zuzen ere, Donostiako Udaltzaingoak, berandu bada ere, erreklamazio-egileari esan egin ziolako ez zegoela txostenik “Udaltzaingoaren txostenak” izeneko datu-basean. Txostenik ez zegoen, txostenak egin zituzten unitateko udaltzainek, Udaleko Jarduera Zerbitzuak eskatuta egin zituztelako txostenok, eta “eskatzaileari bidali ostean ezabatu egiten zirelako”. Beraz, ezin da sarbiderik eman ez dagoen zerbaiten, jadanik ezereztuta dagoelako.

Berraztertze errekurtsoa (RR18-002) aurkeztu zuten ebazpenaren aurka, baina ezetsi egin zuten.

▪ Hirigintzako Kontsultei eta Hirigintza Diziplinari buruzko fitxategiko zenbait datu atzitzea (ET17-013)

Onetsi egin zen alderdi formaletik, hain zuzen ere, Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritzak eskatutako informazio guzti-guztia eman ziolako Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, babes eskubidearen prozedura hasi eta gero, hau da, epez kanpo.

▪ Historia klinikoa atzitzea (ET18-001)

Erreklamazioa onartu egin da alde formaletik, hain zuzen ere, Osakidetzak onartu egin zuelako atzipen eskubidea, berandu izan bazen ere, babes prozedura izapidetzen ari zen bitartean.

▪ Historia klinikoa atzitzea (ET18-002)

Ez zen onartu babes erreklamazioa, haiz zuzen ere, Osakidetzak lege zehazketen epean ebatzi behar zuelako errekurtso-egileak baliatutako eskubidea, eta artean igaro gabe zegoelako epea.

▪ Polizia eginbideak atzitzea (ET18-003)

Ez zen onartu babes erreklamazioa, hain zuzen ere, kasu honetan artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea baliatu nahi zelako, eta eskubide hori 39/2015



Legean dago araututa eta ez delako DBLOn xedatutako atzipen eskubidea. Beraz, 39/2015 Legearen arabera bideratu beharko da. Eskubide hori ebaztea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, administrazioari baizik. Egintza horren aurka errekurtsioa aurkeztu daiteke administrazio bidean edo auzien jurisdikzioan.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET18-004)**

Erreklamazioa onartu egin da alde formaletik, hain zuzen ere, Osakidetzak onartu egin zuelako erreklamazio egilearen atzipen eskubidea berandu izan bazen ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa babes prozedura izapidetzen ari zen bitartean.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET18-005)**

Onartu egin zen alde formaletik, baina ez materialetik, hain zuzen ere, berandu izan bazen ere, Osakidetzak erantzun egin ziolako erreklamazio egileak baliatu zuen atzipen eskubideari, babes espedientea izapidetzen zen bitartean.

- **Udaltzaingoko datu batzuk atzitzea (ET18-007)**

Ez zen onartu babes erreklamazioa, haiz zuzen ere, Bilboko Udalak legez hilabeteko epean ebatzi behar zuelako errekurtsio-egileak baliatutako eskubidea, eta artean igaro gabe zegoelako epea.

- **Udaltzaingoen fitxategietan dauden datu batzuk atzitzea (ET18-008)**

Erreklamazioa onartu egin zen alde formaletik, Bilboko Udalak berandu erantzun ziolako erreklamazio egileak baliatutako sarbide eskubideari, erreklamazio-egileak eskubideak babesteko erreklamazioa aurkeztu ostean Bulegoan.

- **Segurtasun Sailaren fitxategietan dauden datu pertsonal batzuk atzitzea (ET18-010)**

Ez zen onartu babes erreklamazioa, hain zuzen ere, ez zelako frogatu erreklamazio egileak lehendabizi baliatu zuenik atzipen eskubidea tratamenduaren ardura zuen administrazioan; eta baldintza hori nahitaezkoa da erreklamazioa aurkeztu ahal izateko.

- **Segurtasun Sailaren fitxategietan dauden datu pertsonal batzuk atzitzea (ET18-011)**

Ez zen onartu babes erreklamazioa, hain zuzen ere, ez zelako frogatu erreklamazio egileak lehendabizi baliatu zuenik atzipen eskubidea tratamenduaren ardura zuen administrazioan; eta baldintza hori nahitaezkoa da erreklamazioa aurkeztu ahal izateko.

- **Erroldaren erregistro historikoa atzitzea (ET18-012)**

Herriar batek eskatu zuen Bilboko erroldako bere ziurtagiri historikoa, 1971n Bilbora heldu zenetik, eta Udalak 1996/05/01etik 2002/12/30era bitarteko inskripzioa eman zion bakarrik. Eskatzaileak berriro eskatu zuen 1971-1996 aldiko inskripzioa.



Aurkeztutako erreklamazioa aztertu ostean ikusi zen oinarrian ez zegoela Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 15. artikuluan arautzen den atzipen eskubidea, hain zuzen ere, eskatu zutena zelako Udalak erroldatze historikoari buruzko ziurtagiri bat egiteko, eta hori udal idazkariak egin behar duen agiri publiko bat da, eskatzailearen epealdi jakin bateko helbidea egiaztatzeko (1971etik 1996ra arte).

Halako eskabideak udal araudiak arautzen ditu: Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki-erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua eta Estatistikako Institutu Nazionalako Lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekiko Eskumen Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpenak (Udalei Udal Errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen diena). Ohiko legezkotasun auzi bat denez, eta ez denez oinarrizko eskubide baten babesteko auzia, prozedura artxibatu egin zen.

▪ **Hautaketa prozesu baten barruan egindako txosten psikologiko bat atzitzea (ET18-013)**

Eskatzaileari buruzko txosten psikologiko bat atzitzeko eskubideari ez ziotenez erantzun, ukituak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren babesa eskatu zuen. Txostena hautaketa prozesu baten barruan egin zen. Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdiak erakundeak eman egin zion txostena eskatzaileari, baina Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren babesa eskatu eta gero. Babes erreklamazioa onartu egin zen alde formaletik, atzipen eskubidea berandu asebate zelako, eta arduradunari gogoratu zitzaion atzipen eskubide epez kanpo asebetetzea datuak babesteko oinarrizko eskubidearen urraketa dela.

▪ **Udal fitxategiak atzitzea (ET18-016)**

Babes erreklamazio hau ez zen onartu, hain zuzen ere, kasu honetan artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea baliatu nahi zelako, eta eskubide hori 39/2015 Legean dagoelako araututa eta ez delako DBLOn xedatutako atzipen eskubidea. Beraz, 39/2015 Legearen arabera bideratu beharko da. Eskubide hori ebaztea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Bilboko Udalari baizik. Egintza horren aurka errekurtsioa aurkez daiteke administrazio bidean edo auzien jurisdikzioan.

▪ **Udal fitxategiak atzitzea (ET18-017)**

Babes erreklamazio hau ez zen onartu, hain zuzen ere, kasu honetan artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea baliatu nahi zelako, eta eskubide hori 39/2015 Legean dago araututa eta ez delako DBLOn xedatutako atzipen eskubidea. Beraz, 39/2015 Legearen arabera bideratu beharko da. Eskubide hori ebaztea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Bilboko Udalari baizik. Egintza horren aurka errekurtsioa aurkez daiteke administrazio bidean edo auzien jurisdikzioan.



- **Udal fitxategiak atzitzea (ET18-023)**

Babes erreklamazio hau ez zen onartu, hain zuzen ere, kasu honetan artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea baliatu nahi zelako, eta eskubide hori 39/2015 Legean dago araututa eta ez delako DBLOn xedatutako atzipen eskubidea. Beraz, 39/2015 Legearen arabera bideratu beharko da. Eskubide hori ebaztea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Bilboko Udalari baizik. Egintza horren aurka errekurtsioa aurkez daiteke administrazio bidean edo auzien jurisdikzioan.

- **Udal fitxategiak atzitzea (ET18-024)**

Onartu egin zen babes erreklamazioa, hain zuzen ere, Bilboko Udalak berandu erantzun ziolako erreklamazio egilearen atzipen eskabideari, jadanik hasita zegoelako eskubideak babesteko prozedura Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

4.1.2. Ezerezteko eskubidea

- **Udal fitxategietan dauden datuak ezerezte eta zuzentzea (ET17-015)**

Erreklamazioa onartu egin zen alde formaletik, hain zuzen ere, Bilboko Udalak ez ziolako lege ezarritako epean erantzun interesdunari.

Baina, auziaren edukiari erreparatzen badiogu, babes erreklamazioaren eskabidea ezetsi egin zen, udalak ezin zituelako ezereztu ibilgailuaren titulartasun datuak, partikularrak lehenago jakinarazi ezean Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroari titulartasuna aldatu egin zela. Gainera, datuak zuzentzeko eskabidea ere ezin izan zen izapidetu, erreklamazio egileak ez zuelako adierazi zein datu ziren zuzendu beharrekoak, eta ez zuelako aurkeztu zuzenketa egiaztatzen zuen dokumentaziorik. Ez zuelako bete, beraz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 32.1 artikulua agintzen dituen funtsezko betekizunak.

- **Hautaketa prozesu batean aurkeztutako datuak ezerezte (ET17-016)**

Erreklamazio egileak eskatu zion Segurtasun Sailari bere titulu akademikoan zeuden datuak ezerezteko. Titulua aurkeztu zuen hautaketa prozesu baten barruan barematu zezaten.

Babes erreklamazioa ezetsi egin zen, informazio hori mantentzea zilegi zelako administrazioaren eta interesdunaren arteko harreman juridikoak irauten zuen bitartean.

- **Aurrekari polizialak ezerezte (ET18-006)**

Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi egin zen, espedientean zegoen dokumentazioan ikusi zelako, datuak ezerezteko betebeharreko baldintzak bete ondoren, ezerezteko



eskatutako datuak ezereztu egin zirela; eta, beraz, Segurtasun Sailak behar bezala erantzun ziola eskubideari.

▪ **Historia kliniko bateko datuak ezerezte (ET18-009)**

Erreklamazioa onartu egin zen alde formaletik, baina ez materialetik, arten ez zelako bost urteko epea igaro, asistentzia prozesua hasi zenetik. Epe horretan gordetzeko agintzen dio Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen Legearen 17. artikulua tratamenduaren arduradunari historia klinikoko dokumentazioa.

Epe hori igaro ostean, ezereztu egin ahal izango dira historia klinikoan jasota dauden datuak, baina beharrezkoak ez direnak osasun asistentziarako, baldin eta ez badago lege ezarritako gorde beharrik.

▪ **Poliziaren fitxategietako datuak ezerezte (ET18-014)**

Ez zen onartu babes erreklamazioa, hain zuzen ere, ez zelako frogatu erreklamazio egileak lehendabizi baliatu zuenik ezerezteko eskubidea tratamenduaren arduradunaren aurrean (Bilboko Udala); eta baldintza hori nahitaezkoa da erreklamazioa aurkeztu ahal izateko.

▪ **Historia klinikoko datuak ezerezte (ET18-015)**

Ez zen onartu babes erreklamazioa, hain zuzen ere, ez zelako frogatu erreklamazio egileak lehendabizi baliatu zuenik ezerezteko eskubidea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan; eta baldintza hori nahitaezkoa da erreklamazioa aurkeztu ahal izateko.

▪ **Aurrekari polizialak ezerezte (ET18-018)**

Ez zen onartu eskubideak babesteko erreklamazioa, espedientean zegoen dokumentazioa ikusita, egiaztatu zelako Segurtasun Sailak ezereztu egin zituela erreklamazio-egilearen datuak, bildu zireneko helbururako beharrezkoak ez ziren unean.

▪ **Datu polizialak ezerezte (ET18-019)**

Erreklamazioa alde formaletik onartu zen, Bilboko Udalak erantzun egin ziolako erreklamazio egileak baliatu zuen eskubideari, baina lege ezarritako epea igaro eta gero.

Hala ere, erreklamazioa ezetsi egin zen edukiari zegokionez, ezinezkoa zelako datuak ezerezte, lege batek legitimatzen zuelako edo kasu honetan gertatzen zen bezala, lege batek agintzen zuelako tratamendua egiteko.

▪ **Datuak ezerezte historia klinikoak (ET18-022)**

Erreklamazioa onartu egin zen alde formaletik, baina da materialetik, arten ez zelako bost urteko epea igaro, asistentzia prozesua hasi zenetik. Epe horretan gordetzeko agintzen dio Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren



arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen Legearen 17. artikulua tratamenduaren arduradunari historia klinikoko dokumentazioa.

Epe hori igaro ostean, ezereztu egin ahal izango dira historia klinikoan jasota dauden datuak, baina beharrezkoak ez direnak osasun asistentziarako, baldin eta ez badago legez ezarritako gorde beharrik.

4.2. AURRETIAZKO JARDUKETAK

Administrazio publiko bati arau-hauste prozedura bat hasi aurretik, DBEBk aurretiazko jarduketa batzuk burutu ditzake, aztertzeke ea gertatutakoa prozedura hasteko modukoak den.

Agentziak ofizioz burutzen ditu aurretiazko jarduerak, bere kabuz erabakita ala salaketa bat jaso duelako.

2018an Agentziak honako aldeez aurreko jarduerak burutu zituen bere ekimenez:

- **Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren web-orrian irekian argitaratzea Enplegu Eskaintza Publikoko parte hartzaileen datuak (AP18-001)**

Jarduerak itxi egin ziren, Osakidetzak, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 21ean onartu zuen Mozioa betetzea erabaki zuelako, eta, beraz, Enplegu Eskaintza Publiko horren gaineko zerrenden informazio guztia irekian edukitzea web-orrian.

4.3. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-haustea dira.

2018an salaketa kopurua nabarmen igo egin da aurreko urtearekin alderatuta: % 54.

Gainera, salaketa asko ez dira onartu, izaera juridiko pribatuko pertsona fisiko eta entitateei buruzkoak zirelako eta DBEBren ezarpen eremutik kanpo daudelako. Beraz, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali dira (DN18-002, DN18-009, DN18-010, DN18-011, DN18-019, DN18-023, DN18-031, DN18-032, DN18-033, DN18-036, DN18-040, DN18-041, DN18-043, DN18-048, DN18-051, DN18-054, DN18-059, DN18-060 eta DN18-62).

Gainontzeko salaketak arau-hauste prozedura bihurtu ziren edo artxibatu egin genituen, ez zegoelako arau-hauste prozedura hasteko nahikoa arrazoirik.



4.3.1. Artxibatutako salaketak

- **Hirigintzako kexa baten gaineko datuen berri ematea (DN17-32)**

Salatu zuten Barakaldoko Udalak hirugarren bati jakinarazi ziola salatzaileak eta beste herritar batek udaletxean aurkeztu zuten kexa bati buruzko informazioa.

Artxibatu egin zen; izan ere, burututako jarduerak ikusita, Bulegoak iritzi ziolako ez zirela egiaztatu salatutako gertakariak, udalari datu babesaren esparruko arau-hauste bat egozteko modukoak izan zitezkeenak.

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (DN17-034)**

Osakidetza-Euskal Osasun sistema salatu zuten, bidegabe eta behin eta berriz sartzeagatik 2016. eta 2017. urteetan historia kliniko batean, adostasunik gabe eta lege gaikuntzarik gabe.

Salaketa artxibatu egin zen, ezin zelako esan DBLO urratu zenik. Osakidetzak egindako eta Bulegora bidalitako aurretiazko informazioen espedientearen instruktore-idazkariak egindako lan eskerga eta sakona ikusita, idazkariak ateratako ondorioaren bat egin zuen Bulegoak, ez zelako egiaztatu bidegabeko sarbiderik egin zenik salatzailearen historia klinikoan.

Interesdunak berraztertzeako errekurtsua (RR18-003) aurkeztu zuten ebazpenaren aurka, baina ezetsi egin zuten.

- **Osasun datuak lagatzea (DN17-037)**

Pertsona batek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua salatu zuen bere datu pertsonalak emateagatik Gurutze Gorriari bere adostasunik gabe.

Salaketa artxibatu egin zen, salatzailearen osasun datuak komunikatu zirelako osasun asistentzia emateko salatzaileari, eta Osakidetza ente publikoak eta Gurutze Gorriko ospitaleak izenpetutako hitzarmen baten barruan.

- **Udaltzaingoari dokumentazioa lagatzea (DB17-038)**

Gernikako Udala salatu zuten Udaltzaingoari lagatzeagatik udaltzain batek egindako arau-hauste administratibo bati buruzko dokumentazioa.

Salaketa artxibatu egin zen, salatutako tratamenduak Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren babesa zuelako.

- **Ezkontzagatik dagokion lizentziaren berri ematea (DN18-001)**

Irakasle funtzionario batek Hezkuntza Saila salatu zuen, lan egiten duen ikastetxeko zuzendaritzari esateagatik zergatik falta zen behin-behinean lanpostutik (lizentzia ezkontzagatik).

Salaketa artxibatu egin zen, datu tratamendu horrek Euskal Eskola Publikoaren Legearen 34.e) artikulua babesa duelako, DBLOren 11.2.a) artikuluekin bat.



- **Komunikabide bati filtratzea espediente batean zeuden datu pertsonal batzuk (DN18-004)**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua salatu zuten, datu batzuk emategatik komunikabide bati.

Salaketa artxibatu egin zuten, ez zegoelako arau-hauste prozedura bat irekitzeko nahikoa arrazoia, salatzaileak ez zuelako aurkeztu salatutako portaera arau-hauslearen probarik, ez eta zantzurik ere.

- **Familiako errolda egiaztagiri bat ematea etxebizitzan bizi ez den hirugarren bati (DN18-005)**

Vitoria-Gasteizko Udala salatu zuten bizikidetza-unitatearen txartela emateagatik etxebizitzan erroldatuta ez dagoen pertsona bati, zehatz esateko, adingabeko baten aitari. Aitak gero txartela aurkeztu zuen bigarren hezkuntzako institutu batean, hain zuzen ere, bizikidetza-unitatearen txartela delako 2018/2019 ikasturtean ikastetxeetan onartua izateko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agirietako bat. Salatutako kasuan, adingabearen aitari eman egin zioten bizikidetza txartela. Bertan ageri ziren adingabearen etxean erroldatuta zeuden pertsona guztien izen-abizenak, eta horien artean ez zeuden eskatzailearenak; bai, ordea, salatzaileenak (adingabearen ama eta amonarenak) eta beste batzuenak.

Salaketarekin batera aurkeztutako dokumentazioan, zehatz esateko, ikastetxean izena emateko eskabidean, adingabeak adierazten du ez duela neskaren zaintza, baina bai guraso-ahala, eta guraso-ahala baliatuz ari dela alabaren matrikulazio eskabidean. Guraso-ahala baliatzeak esan nahi du seme-alabak hezteko eginbeharra bete behar dela eta prestakuntza integrala eman behar zaiela, eta, beraz, bermatu hezkuntzarako oinarritzko eskubidea (Konstituzioaren 27. artikulua). Esan dezakegu, salatuak, adingabearen matrikulazioa prozeduran bizikidetza txartela aurkeztu izanak adierazten duela salatuak Udalari txartela eskatu ziola interes legitimoa zuelako, guraso-ahalaren titulartasunak aitortzen dizkion eginbeharrak burutu ahal izateko.

Salatzaileek berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuten ebazpenaren aurka. Errekurtsoa arrazoitzeko adierazi zuten eskatzaileak adierazitako helburua, hau da, alaba ikastetxe batean inskribatzea, ez dela nahikoa Udalak egindako datu komunikazioa legitimatzeko, hain zuzen ere, inskripzioa bertan behera geratu zelako, ez zuelako guraso bien adostasunik.

DBEBk iritzi zion errolda egiaztagiria adingabearen aitari eman ziotela, eta adingabearen aita, adingabearen gaineko guraso-ahalaren titularra zela, eta, beraz, interes legitimoa zuela Udalak emandako informazioa jasotzeko; eta, ondorioz, ezetsi zuen errekurtsoa.



- **Espediente bateko zenbait datu lagatzea (CN18-006)**

Erandioko Udala salatu zuten, salatzaileak aurkeztutako salaketa baten gaineko informazioaren berri emateagatik hirugarren batzuei.

Salaketa artxibatu egin zen, salaketa arrazoitze moduko egozketa-frogarik ez zuelako aurkeztu.

- **Eskubideak babesteko prozedura batean emandako ebazpena ez betetzea ET17-001 (DN18-007)**

Salatu zuten Osakidetza-Euskal Osasun Sistemak ez zuela bete ET17-001 espedientean emandako ebazpena.

Salaketa artxibatu egin zen, Bulegoaren ebazpena bete zelako, irizpide mediku zorrotz batekin.

- **ASNEF erregistroan sartu izana (DB18-008)**

Herritar batek Bilboko Udala salatu zuen ASNEFF zordunen erregistroan sartu zuelako.

Salaketa artxibatu egin zen, Udalak ez zuelako erregistroan sartu; izan ere, udalak beste bide batzuk dituelako, legea aurreikusitakoak, partikularrek udalarekin dituzten zorrak kobratzeko.

- **Hildako pertsona baten datu batzuk lagatzea (DN18-015)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua salatu zuten, hildako pertsona baten datu pertsonalak lagatzeagatik komunikabide bati, eta gero komunikabideak argitaratu egin zituelako.

Salaketa artxibatu egin zen, DBLO ez zaielako ezartzen hildako pertsonen datu pertsonalen tratamenduei.

Hala ere, gogorarazi zen datu pertsonalen tratamendua babesteko eskubidea desagertu egiten dela pertsona hiltzen denean; baina, hala ere zenbait pertsonen eskubidea izango dute hildako pertsonen izenean ekintza judizialak abiarazteko, konstituzioak babesten dituen beste eskubide batzuk bermatzeko, esaterako, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidea, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak xedatutako baldintzen arabera.

- **Posta elektronikoa jasotzea enkriptatu gabe (DN18-016)**

Hizkuntza Politikako Sailburuordetza salatu zuten, posta elektronikoa jasotzeagatik enkriptatu gabe.

Tratatutako datu pertsonalak oinarritzko mailakoak ziren. Ez zen egiaztatu datu horiek hirugarrenei laga zitzaizkienik edo segurtasun urraketa egon zenik ELEBI zerbitzuak



hirugarrenei egindako komunikazioetan hartutako neurrietan. Ondorioz, salaketa artxibatu egin zen.

▪ **Biztanleen udal errolda erabiltzea kultura jarduera baterako gonbidapen bat bidaltzeko (DN18-022)**

Bizkaiko Foru Aldundia salatu zuten, Eustaten bitartez biztanleen udal erroldako datu batzuk erabili zituelako salatuari kultura jarduera baterako gonbidapen bat bidaltzeko.

Salaketa artxibatu egin zen; izan ere, burututako jarduerak ikusita, Bulegoak iritzi ziolako ez zela ondorioztatu foru aldundiari datu babesaren esparruko arau-hauste bat egoteko moduko gertakaririk egon zenik, hain zuzen ere, salatutako datu tratamendua legimitatuta zegoelako azaroaren 25eko 7/1983 Legearen 7. artikularekin bat eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 2. xedapen gehigarriko 1. atalaren arabera.

▪ **Adostasun akastuna prestazioen eskabide batean (DN18-024 eta DN18-030)**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua salatu zuten, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitza prestazio osagarria eskatzeko prozeduretan interesdunen adostasun-klausulak zituen akatsengatik.

Hau da, salatu zutena izan zen eranskinean atxikita zegoen adostasun-klausula; eta alegatu zuten horrela jasotako adostasuna ez zela adostasun askea, ez zuelako aukerarik ematen zenbait tratamendu bereizita baimentzeko, adostasuna bertan behera uzteko aukeraren berri ez zuelako ematen eta klausulak adierazten zuelako sinatzaileek baimena ematen ziotela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari behar dituen datu pertsonal guztiak eskuratu ahal izateko zuzenean eta/edo bitarteko telematikaren bidez, edozein organismo edo administrazio publikotatik.

DBEBk uste du klausula ez dagoela ondo idatzita, izan ere, dagoen bezala irakurrita uler daiteke adostasuna dela datuak tratatu ahal izateko oinarri juridikoa, eta ez da hala, badagoelako halako datu tratamenduak gaitzen dituen lege aurreikuspen argi bat 4/2011 Legearen 60.1 artikuluan. Bestalde, esan behar dugu informazio klausularen bukaerako formulak dioela “aipatutako helbururako beharrezkoa den edozein datu” jaso ahal izango dela; eta horrek Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasotako datuak minimizatzeko printzipioa urra dezake. DBEBk ondorioztatu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baduela babes juridikoa salaketan aipatzen den datu tratamendua egiteko, baina, I. Eranskineko informazio klausula aldatu beharko du: benetan dagoen lege gaikuntza zein den jaso beharko da eta ezabatu adostasunari buruzko aipamena eta salatutako klausularen bukaerako formula.



- **Baimenik gabeko helburu baterako datuak lagatzea (DN18-035)**

Pertsona batek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua salatu zuen, bere datuak lagatzeagatik enpresa pribatu bati, adostasuna adierazi zuen helbururako izan beharrean, beste baterako laga zituelako.

Salaketa artxibatu egin da, egiaztatu delako salaketa eta salaketari atxikitako dokumentazioa ikusita, salatzaileak adostasuna adierazi zuela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere datu pertsonalak tratatu zitzaizkion, lana bilatzeko; eta salatzaileak hirugarrenei lagatzeko baimena ere eman zuela, lan eskaintzetarako; eta horixe da, hain zuzen ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egin zuena, berariaz bete zuelako datuak laga zirenean zegoen helburua.

- **Datu pertsonalen berri ematea (DN18-045)**

Segurtasun Saila salatu zuten, ustez hirugarren bati eman ziolako salatzailearen informazio pertsonala, eta informazioak agerian uzten zuela salatzaileak salaketa bat aurkeztu zuela hirugarrenaren kontra.

Artxibatu egin zen; izan ere, burututako jarduerak ikusita, Bulegoak iritzi ziolako ez zirela egiaztatu salatutako gertakariak, salatutako administrazioari datu babesaren esparruko arau-hauste bat egozteko modukoak izan zitezkeenak.

- **Salatzailearen identitatea agerian uztea (PI18-046)**

Pasaiko Udalaren aurkako salaketa bat zen eta artxibatu egin zen, ez zelako salatzailearen informazio pertsonalik eman inori. Erreklamazioa izapidetzen ari ziren langileak baino ez zituzten salatzailearen datu pertsonalak atzitu.

- **Segurtasun akatsa (PI18-049)**

Ez zen onartu justizia administrazioaren aurka aurkeztu zuten salaketa, beste espediente bat ebatzi zuelako Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gertakari beragatik: PI18-013 Arau-hauste Prozedura.

- **Salatzailearen identitatea agerian uztea (PI18-052)**

Irungo Udala salatu zuten, salatzailearen informazio pertsonala emateagatik hirugarren batzuei, eta informazioak argi uzten zuelako berak jakinarazi ziola udaltzaingoiari udal ordenantzen aurkako jarduera batzuk egin zirela.

Artxibatu egin zen; izan ere, burututako jarduerak ikusita, Bulegoak iritzi ziolako ez zirela egiaztatu salatutako gertakariak, udalari datu babesaren esparruko arau-hauste bat egozteko modukoak izan zitezkeenak.

4.4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoei irekitzen zaizkien prozedurak dira, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-



haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela. Bukatzeko bi modu daude: artxibatzea ala, hala badagokio, arau-haustea deklaratzeko, zuzentzeko neurriak hartzeko eskatuz.

Lege Aholkularitza eta Ikuskaritzak 2018an izapidetutako prozedura gehienak ebazteko honako arauak erabili dira: 15/1999 Lege Organikoa eta 2/2004 Lege autonomikoa, eta horiek garatzen dituzten arauak; 2018ko maiatzaren 25etik aurrera Erregelamendu Orokorra eta uztailaren 27ko 5/2018 Errege Dekretua. Azken hori 2018ko uztailaren 31az geroztik aurkeztutako erreklamazioei ezarri zaie, 3/2018 Lege Organikoa onartu bitartean.

2018an 19 arau-hauste prozedura berri hasi genituen eta 17 ebatzi genituen. Emaiza honakoa izan da: hiru arau-hauste oso astun, bederatzi astun eta bost arau-hauste arin.

2018an gehien deklaratu zen arau-haustea sekretu gorde beharra (DBLOren 10. artikulua) eta datuen kalitatearen printzipioa (DBLOren 4. artikulua) urratzeari buruzkoak izan ziren; eta horren atzetik deklaratu ziren batzuk datu pertsonalak babesteko esparruko beste honako printzipio biak urratzeagatik: datuen segurtasunaren printzipioa (DBLOren 9. artikulua), datu bilketan dagoen informazio eskubidea (5. artikulua) eta bereziki babestutako datuen tratamendua (7. artikulua).

- **Posta elektronikoa bidaltzea ezkutuko kopiarik gabe master batean alde aurreko izen-ematea egin zuten guztiei (PI17-015)**

Euskal Herriko Unibertsitateak mezu elektroniko bat bidali zien, ezkutuko kopiarik gabe, master batean alde aurreko izen-ematea egin zuten guztiei, eta “Nori...” eremuan idatzitako postako helbideak hartzaile guztiek ikusteko moduan zeuden.

Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.

Euskal Herriko Unibertsitateak DBEBri jakinarazi zion zein neurri hartu zituen halako arau-hausterik berriro gertatu ez dadin.

- **Adingabe ezgaitu batzuen datuak lagatzea (PI17-016)**

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru erakundea salatu zuten, adingabe batzuen ezgaitasunaren datua eta helbidea lagatzeagatik zaharren elkarte bati adingabeen edo adingabeen legezko ordezkarien adostasunik gabe eta lege babesik gabe.

Deklaratu zen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 7.3. artikulua urratu zutela, datu sentisbleei buruzkoa; eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.4 b) artikulua oso larritzat jotzen duen arau-haustea da.



Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru erakundeari eskatu zitzaion hartzeko barne antolaketako neurri egokiak aurrerantzean halakorik gertatu ez dadin, eta neurri horiek jakinarazteko Bulegoari.

- **Informatzeko betebeharra ez betetzea udal batek egindako inkestetan (PI17-017)**

Sopelako Udalak kontsulta bat egin zuen lineako formularioak erabilita, udalerriko gai bati buruzko informazioa jasotzeko, baina interesdunei azaldu gabe Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua aurreikusitakoa.

Udalari zehapena ezarri zitzaion informatzeko betebeharra urratzeagatik. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 d) artikulua arabera arau-hauste arina da.

- **Telefono mugikorraren zenbakia erabiltzea adostasunik gabe (PI17-020)**

Udalaren kirol jarduera batean parte hartzeko izen-emateen bidez egindako datu bilketaren unean Zallako udalak ez zien esan eskatzaileei nor izango zen bildutako informazioaren hartzailea.

Portaera horrek Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 5/1992 Lege Organikoaren 5. artikulua urratu zuen. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.2 d) artikulua arintzat jotzen du arau-haustea.

- **Hirugarren batzuei lagatzea zehapen espediente bateko hainbat datu (PI17-021)**

Zanbranako Udalak hirigintzako diziplina espediente bati buruzko informazio pertsonala zabaldu zuen “Facebooken” duen orri baten bidez.

DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzearen ardura deklaratu zitzaion udalari. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 f) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste astuna da

Zanbranako Udalak ez dizkio jakinarazi Batuk Babesteko Euskal Bulegoari zein neurri hartu dituen.

- **Datu pertsonal gehiegi zeuzkan informazio txartel bat (PI17-022)**

Laudioko Udala salatu zen udalerriko taxien geltokian plaka bat jarri zuelako, eta bertan ageri zirelako udal lizentzia zenbakia eta zerbitzuaren titularraren izena, abizenak eta telefono zenbakia.

Deklaratu zen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 4. artikulua urratu zela. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko



Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 c) artikulua larrizat jotzen duen arau-hauste da.

Arau-hauste prozedura hau izapidetzen ari zen bitartean kendu zituen Udalak gehiegizko datuak txarteletik.

▪ **Segurtasun betebeharra urratzea (PI18-001)**

Justizia.eus web-orriak aukera ematen zuen NANA erabilita kontsultatzeko izapideen egoera, beste datu osagarririk gabe. Lan eta Justizia Sailari arau-hauste bat deklaratu genion, DBLOren 9. artikulua urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3.g) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste astuna da.

Administrazioak ez ditu jakinarazi hartutako neurriak.

▪ **Datu sentsibleak adieraztea kondekorazio ekitaldi publiko batean (PI18-002)**

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak saltzaileari buruzko informazio sentsiblea egin zuen publiko, salatzailea kondekoratu zuten dominak banatzeko ekitaldi batean; eta informazio hori ematea ez zen beharrezkoa ekitaldi horrek zuen helbururako.

Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 4. artikuluko kalitatearen printzipioa urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.

▪ **Enplegu publikoaren deialdi batean beharrezkoak ziren datu batzuk ezereztea (PI18-003)**

Lekeitioko Udalean langile publiko bat kontratatzeko deialdiko epaimahai kalifikatzaileak oinarrietan aurreikusitako elkarriketaren proba egin zuen. Elkarriketen balorazioa zela eta, parte hartzaile bakoitzari emandako puntuazioari buruzko arrazoiak eta argudioak jaso egin ziren eta epaimahaikide bakoitzak bertan azaldu zituen, elkarriketak egin ziren unean bertan. Baina, gerora oharrak suntsitu egin ziren.

Datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, salatutako gertakariak datu pertsonalen lege kanpoko tratamendu bat ekarri dute, eta, beraz, DBLOren 4.5 artikulua urratu dute. Artikulu horrek xedatzen du datu pertsonalak ezabatu egin beharko direla nahitaez, datuok jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean. Edozelan ere, gerora Udala saiatu zen elkarriketa berriro egin eta salatzailearen defentsa eskubidea berreskuratzen.

Agentziak deklaratu zuen Lekeitioko Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 5/1992 Lege Organikoaren 4.5. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.4 g) artikulua oso larrizat jotzen duen portaera izan zela.



Lekeitioko Udalak, hartutako neurri zuzentzaileak jakinarazi zizkion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

▪ **Proba psikotekniko batean egindako grabazioak eta oharra ezabatzea (PI18-004)**

Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdiak erakundearen artxiboetan ez dira ageri elkarriketaren grabazioa, zuzentzeko irizpideak eta oharra ere ez. Ertzaintzak egindako hautaketa prozesu batekoak dira guztiak.

Datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, salatutako gertakariak datu pertsonalen lege kanpoko tratamendu bat eragin dute, eta, beraz, DBLOren 4.5 artikulua urratu dute. Artikulu horrek xedatzen du datu pertsonalak ezabatu egin beharko direla nahitaez, datuok jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean. Edozelan ere, gerora Udala saiatu zen elkarriketa berriro egin eta salatzailearen defentsa eskubidea berreskuratzen.

Agentziak deklaratu zuen Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdiak erakundeak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 5/1992 Lege Organikoaren 4.5. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.4 g) artikulua oso larritzat jotzen duen portaera izan zela.

Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdiak erakundeak, hartutako neurriak jakinarazi zituen.

▪ **Zehapen prozedura betako informazioa lagatzea eta gero blog batean argitaratzea (PI18-005)**

Etxebizitza Sailaren lurralde ordezkaritza batek aditzera eman zion kazetaritzako blog bati babes ofizialeko etxebizitza baten titularrari irekitako zehapen espediente bati buruzko informazioa. Titularrak Interneten iragarrita zeukan, alokatzeko.

Informazioa blogaren bidez zabaldu zen, espedientatuaren identitatea eta guzti.

Informazio pertsonal hori inori esaten bazaio, hori egitea legitimatzen duen lege-oinarririk gabe, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 10. artikulua urratzen da. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 f) artikulua larritzat jotzen duen arau-haustea da.

Administrazioak auzi-bidean errekurritu zuen ebazpena.

▪ **Udal bulego batzuetan segurtasun neurri mahikoa ez (PI18-006)**

Artziniegako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen arreta egitean, menpekotasun, ezgaitasun edo gizarte larrialdietako espedientei buruzko informazio



sentsiblea tratatzen zen, baina segurtasun neurririk gabe, eta ez zen eragozten baimenik gabeko hirugarrenen sarbidea.

Portaera horri DBLOren 9. artikulua ezarritako zehapena dagokio. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 g) artikulua araberaren arau-hauste larria da.

Prozeduran zehar Udalak hainbat segurtasun neurri hartu zituen.

- **Udalan erregistratutako dokumentu batzuk erabiltzea dokumentu horiek bildu zirenean zegoen helbururako barik beste baterako (PI18-007)**

Zanbranako Udalak salatzailearen informazio pertsonala zuten dokumentu batzuk erabili zituen, bere adostasunik gabe, peritu txosten bat egiteko,

Deklaratu zen Zanbranako Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 4.2. artikulua urratu zuela. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 c) artikulua larritzat jotzen duen arau-haustea da.

Udalak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi zion datuak babesteko araudia betetzeko hartu zuen protokoloa.

- **Datu pertsonalen gehiegizko tratamendua zerga helburuekin (PI18-008)**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuna salatu zuten Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarte eta kirol izaerako zortzi elkartetako milaka pertsonen datuak bildu eta tratatzeagatik.

Foru ogasunari zehapena ezarri zitzaion datuen kalitatearen printzipioa urratzeagatik (DBLOren 4.1 artikuluko arau-haustea), lortu nahi zuen helbururako gehiegizko datuak tratatu zituelako. 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua arau-haustea larritzat jotzen du.

Foru ogasunak jakinarazi egon dizkio Batuek Babesteko Euskal Bulegoari zein neurri zuzentzaile hartu dituen.

Salatzaileak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurritu zuen ebazpena.

- **Posta elektronikoa bidaltzea datu pertsonal batzuekin (PI18-009)**

Osasun Sailak posta elektroniko bat helarazi zien lineako ikastaro bateko parte hartzaile guztiei, eta hartzaile bakoitzak norbere datuak ikustea gain, inorenak ere ikus zezakeen.

Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.



Osasun Sailak jakinarazi egon dizkio Batuak Babesteko Euskal Bulegoari zein neurri zuzentzaile hartu dituen.

▪ **Komunikabide batean argitaratzea udal espediente bateko informazioa (PI17-010)**

Donostiako Udala salatu zuten, salatzaileari hasitako espediente bateko informazioa zabaltzeagatik. Informazioa komunikabide batean argitaratu zuten (Diario-Vasco).

Deklaratu zen Udalak DBLOren 10. artikuluko sekretu gorde beharra urratu zuela. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3.f) artikulua arau-hauste larritzat du arau-haustea.

Baina, Udalak ebazpen zehatzaile honen aurkako errekurtoa aurkeztu zuten administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

▪ **Erroldako zenbait datu lagatzea ikastetxe pribatu bati (PI18-011)**

Balmasedako Udalak erroldako datu batzuk eman zizkion ikastetxe pribatu bati matrikulazio kanpainarako. Halako datuak laga zirenez legitimazioko lege-oinarririk gabe, DBLOren 10. artikulua urratu zen. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua arau-hauste arintzat jotzen du.

Udalak jakinarazi egin dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari zein neurri hartu dituen.



5. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA

5.1. AZKEN BALANTZEA

5.1.1. Fitxategien erregistroaren jardura 2018an - Izapidetutakoinskripzioak.

(EB) 2016/679 Erregelamendua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) 2018ko maiatzaren 25ean sartu zen bete-betean indarrean, eta horrek ekarri zuen 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzea. Ondorioz, harrezkeroztik desagertu egin da ordura arte datu babesaren arloan “betetzearen kulturaren” definizioaren ezaugarriarik aipagarriena izan zen betebeharretakoa bat: kontrol agintaritzei jakinarazi beharra datu pertsonaldun fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzen zirenean.

2016tik aurrera fitxategien erregistroak izan duen joerari erreparatuz gero, aurreikus zitekeen erregistroaren jardura nahikoa baxua izango zela indarrean segitu duen 2018ko bost hilabeteetan; izan ere, tratamenduen arduradunek, jakinik Erregelamendu Orokorra berehala aplikagarria izango zela eta jakinarazi beharra bertan behera geratuko zela, tratamenduen eguneratzeak lasaitu edo atzeratu egin dituzte.

2018an zehar guztira 141 inskripzio eskabide izapidetu dira. Horietatik 39 (% 28) fitxategiak sortzeko izan dira, 76 aldatzeko (% 54) eta 26 ezabatzeko (% 18). Ondo koadroan oso argi ikus daiteke azken urteotan gertatu den jaitsiera:

Urtea	Inskripzioak			Mugimenduak guztira	Urteko saldoa
	Sortzea	Aldatzea	Ezabatzea		
2018	39	76	26	141	13
2017	158	362	88	608	70
2016	231	264	265	760	-34
2015	331	310	195	836	136
2014	415	284	249	948	166
2013	801	350	156	1.307	645
2012	896	652	244	1.792	652

2018ko jardura alderatzen bada aurreko bost urteetakoarekin, ikusten da 2013an fitxategien erregistroari 1.307 (sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko) mugimendu jakinarazi zizkiotela, 2018ko 141 mugimenduak baino ia hamar aldiz gehiago. 2018ko urteko saldo edo ekarpen garbia (sortzeak ken ezabatzeak) berrogeita hamar aldiz txikiagoa izan da.


Edozelan ere, jardura hain motela izan bada, ez da izan jakinarazteko betebeharra desagertu behar zelako, edo ez behintzat horregatik bakarrik. Esan behar da azken urteotako beheranzko joera lehendik zetorrela, demografian erabili ohi diren eta geroago azalduko ditugun adierazle batzuk erabilita egindako analisi bidez, bagenekielako fitxategien erregistroaren “egoera egonkorra” zela, tratamendu-arduradun gehienek jadanik erregularizatuta zeuzkatelako egiturazko tratamendu guztiak, eta hazkundera “aldi begetatibo” batean zegoela. Beraz, lehendik zeuden



tratamenduen mantentze-lanak baino ez ziren egiten; eta tratamendu berri bakanen bat.

5.1.2. Erregistroaren bilakaera historikoa - Fitxategi aktiboak

2018ko maiatzaren 25ean erregistroan 8.867 fitxategi aktibo zeuden jasota guztira. Ondoko grafikoan ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko fitxategi kopuruaren bilakaera historikoa:



Erregistroaren garapen historikoa

Grafikoa ikusita, hiru joera nabarmentzen dira, beste hainbeste epealditan mantendu direnak:

1. Esate baterako, hasierako aldian, hau da, 1994tik 2004ra bitartean, inskripzio gehienak AEPDren Erregistroaren funtzionamenduaren lehenengo urteetan egin ziren, eta urteko hazkundera oso neurritsua izan zen.
2. 2004an DBEB eratu zen, eta harrez geroztik urtero hazkunde iraunkorra eta oso nabarmena izan da, 2013 arte.
3. 2013tik aurrera hazkundera moteldu egin da, eta grafikoaren hazkunde-kurba berdinduz doala ikusten da.

Joera edo bilakaera horiek modu kuantitatiboan adierazteko, hiru adierazle erabili dira, esparru demografikoan erabili ohi direnen antzekoak. Honako hauek dira:

- **Sortze tasa:** alden batez bestekoa (sortutako fitxategiak) kontuan hartutako epealdiko (urtea) fitxategi aktiboekin alderatuta.
- **Aldatze tasa:** aldatutako fitxategien batez bestekoa kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboekin alderatuta.
- **Hazkunde tasa**




- : fitxategien batez besteko garbia (sortutakoak ken ezabatutakoak) kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboen kopuruarekin alderatuta.

Hona 2012 eta 2018 urteen arteko tasak eta adierazleak:

Urtea	Fitxat. guztira	Sortzea	Tasak Aldatzea	Ezabatzea
2018	8.867	% 0,4	% 0,9	% 0,1
2017	8.854	% 1,8	% 4,1	% 0,8
2016	8.764	% 2,6	% 3,0	% -0,4
2015	8.818	% 3,8	% 3,5	% 1,6
2014	8.682	% 4,8	% 3,3	% 1,9
2013	8.516	% 9,8	% 4,3	% 7,9
2012	7.871	% 11,9	% 8,6	% 8,6

Zifra horiek kontuan hartu eta ateratzen diren tasen bilakaera modu grafikoan azalduta, ikusten dira DBEB 2004an sortu zenetik egon diren joerak:



Fitxategien **sortze tasak** behera egin du urtez urte: hasieran % 35ekoa zen eta % 2koa baino tasa txikiagoa izatera heldu da 2016az geroztik. Datu horrek adierazten duena da fitxategien arduradunak diren organismoen “egoera egonkorra” dela gaur egun, gehienek erregularizatu dituztelako ia fitxategi guztiak, eta fitxategi berriak sortzeko premia ere jaitsi egin delako.

Eta hori hala dela erakusten du **hazkunde tasak**. Hazkunde tasak fitxategien saldo gordina du kontua (sortutakoak ken ezabatutakoak), eta ikusten da % 2,0tik beherako joerari eusten diola. Gainera, estreinakoz, 2016an negatiboa izan zen. Termino demografikoekin alderatuko bagenu, “hazkunde begetatiboa” duela esango genuke.

Edozelan ere, **aldatze tasa** beti egon da hazkunde tasaren azpitik, azken urteetan izan ezik, goitik egon delako. Azken urte hauetan horixe izan da egoera: aldatzeko eskabideak izapidetzea izan da erregistroaren jardura garrantzitsuena.



5.2. FITXATEGIEN ERREGISTROTIK TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTRORA

Hasiera-hasieratik, 95/46/EE Zuzentarauak aginduta, tratamenduak aldeztu aurretik jakinarazi behar hiru helburu zituen batez ere:

- Tratamenduak gardenak izatea eta argitaratzea, erreklamazioak egitea errazagoa izateko interesdunentzat.
- Lagungarria izatea arduradunak kontzientziazteko zein garrantzitsua den betetze formala tratamenduei dagokienez.
- Lagungarria izatea egoeraren azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egiteko, eta horietan oinarrituta ikuskaritza, auditoriak eta jarraibideak egiteko.

Esan behar da bere garaian Estatu kide bakoitzak zuzentzarua barne araudira eraman zuenean, tratamenduak aldeztu aurretik kontrol agintaritzari jakinarazi beharra izan zela Estatu kideen arteko desberdintasun handiena. Izan ere, herrialde batzuek jakinarazpenak sinplifikatzea erabaki zuten, edo jakinarazi beharrik ez ezartzea, tratamendu kategoriatan batzuetarako behintzat. Adibidez, zenbait herrialdetan, jakinarazpena egin behar izatearen ordez, barne erregistroak kudeatu beharra ezarri zuten, batez ere, “datuak babesteko arduraduna” egon beharko zela aurreikusi zutenetan. Datuak babesteko arduradunaren figurak antz handia du gerora Erregelamendu Orokorrek ezarritako “datuak babesteko ordezkariarekin”.

Espainiako barne araudira ekarri zenean ez zen halako figurarik sortu, eta 15/1999 Lege Organikoak (DBLO) datuak babesteko erregistroa ezarri zuen “betetzearen eskemaren” alderdi garrantzitsutzat, eta garrantzi handiagoa eman zion “*fitxategi*” kontzeptuari, beste herrialde batzuetan ohikoagoa zen “*tratamendu*” kontzeptuari baino. Gainera, 15/1999 Lege Organikoak, alderdi formalekin hartuta, oso prozedura zorrotza ezarri zuen titulartasun publikoko fitxategietarako. Hona prozedurak zituen hiru urratsak:

- Fitxategiaren arduradunak xedapen orokor bat onartu beharra.
- Xedapen orokorra zegokion aldizkari ofizialean argitaratu beharra.
- Fitxategiak kontrol-agintaritzaren erregistroan inskribatu beharra.

Zuzentzarua urteetako bilakaera ikusita, oro har onartu zen “nahikoa astuna zela eta ez zuela gehitzen benetako balio erantsirik tratamendu-operazio guztiak nahitaez jakinarazi behar izatea datu babesaz arduratzen ziren agintaritzari”. Hitz horiek daude jasota Europako Batzordeak Europako Parlamentuari egindako COM(2010) 609 Jakinarazpenean: «*Datu pertsonalak babesteko ikuspegi globala Europar*



Batasunean»¹. Horren emaitza izan da Erregelamendu Orokorretik desagertu egin dela tratamenduak jakinarazi beharra, eta horren orde, aurrerantzean tratamendu-arduradunek “tratamendu-jardueren erregistro” bat kudeatu beharko dute erakunde barruan.

Une honetan, kontuan hartuta DBEBren Fitxategien Erregistroak bere jardura betiko bukatu duela, Erregistrotik egin daitekeen balantzea da oso neurri egokia eta aproposa izan dela titulartasun publikoko fitxategiei –“agintaritza eta organismo publikoek egindako tratamendu” esaten zaio orain– kentzea izaera orokorreko xedapen bat onartzeko obligazioa, gehiegizko betebehartzat jotzen zelako.

Hala ere, ez dirudi egokiena denik, administrazio publikoen esparruan behintzat, nahikoa izatea jardura-erregistroetan jasotzea besterik gabe, tratamendu-arduradunek beraien administrazio eginkizuna betetzeko egiten dituzten “borondate adierazpenen” “ondorio juridikoek” eraginda hasten dituzten datu pertsonalen tratamenduak. Komenigarria litzateke “administrazio egintza” hori behar bezala dokumentatzea, arduradunari egokien iruditzen zaion xedapen maila eta formalismoa erabilita (erabakia, ebazpena, ...).

Esate baterako, tratamendu-jardueren barne erregistro bat kudeatzea oso lagungarria izan daiteke Erregelamendu Orokorrak ekarri duen “erantzukizun proaktiboa” ezartzeko, nahiz eta tratamenduen gardentasuna eta publizitatea hain eraginkorrak ez izan. 3/2018 Lege Organikoaren 31. artikuluan jasotako aurreikuspenak dio 77.1 artikuluan zerrendatutako agintaritza eta organismo publikoek “*beren tratamendu-jardueren zerrenda jarriko dutela jendaurrean, baliabide elektronikoen bidez irisgarri*”. Hori lagungarria izango da gardentasunerako, nahiz eta informazio iturriak zertxobait sakabanatu.

DBEBk ahalegina egin du laguntzeko DBEBren menpeko Fitxategien Erregistrotik tratamendu-arduradun bakoitzaren menpeko Tratamendu-jardueren Erregistrora aldatzen. Horretarako, Fitxategien Erregistroko datuak “eramangarri” ipini ditu, eta eskatu duten arduradunei kopia bana eman die “erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean”. Kopia horiek oinarri hartu eta tratamendu-arduradun bakoitzak bere ikuspegi propioaren arabera eratu du Tratamendu-jardueren Erregistroa. DBEBk iradoki die, lehenengo momentuan tratamendu-jardueren erregistroak eratu daitezkeela Fitxategien Erregistroaren jarraipenak izango balira bezala; izan ere, aukera hori aurreikusita baitago 3/2018 Lege Organikoaren 31. artikuluan: “erregistroa antolatu ahalko da egituratutako datu sorten inguruan” (hau da, fitxategien inguruan), kontua hartuta aurrerantzean egiten diren berrikusketetan tratamendu-jarduerak alda daitezkeela, bateren bat bilduz edo bereiziz, bakoitzaren inguruabarren arabera.

¹ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:52010DC0609&from=en>



Bestalde, Erregelamendu Orokorrak eta 3/2018 Lege Organikoak ez dute aurreikusten dute tratamendu-jardueren erregistroak komunikatu behar direnik edo modu sistematikoan bildu behar direnik. Baina, aurreikusten dute kontrol agintaritzen eskura jarri beharko dituztela, eskatuz gero. Hala xedatzen dutelako Erregelamenduaren 30.4 artikulua, eta 58. artikulua aitortutako ikerketa ahalen ondoriozko jardueren baitan. Ondorioz, oso zaila izango da, lehen aipatu dugun sakabanaketak eta formatuen estandarizazio faltagatik, horiek erabiltzea tratamendu operazioen tipologiaren egoerari buruzko azterketak eta ikerketa egiteko. Eginkizun horretarako aproposagoa dirudi Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa. Segidan aztertuko dugu.

5.3. DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA

Erregelamendu Orokorren 37.1 artikulua dio nahitaez izendatu beharko dela datuak babesteko ordezkaria (DPD-DBO) honako hiru kasuetan:

- a) Tratamendua egiten duena ***agintaritza edo erakunde publikoa*** bada.
- b) ***Jarduera nagusiak*** interesdunen ***eskala handiko*** ohiko behaketa sistematiko bat eskatzen duten tratamendu-eragiketak badira, edo
- c) ***Jarduera nagusiak*** baldin badira datu-kategoria berezien ***eskala handiko*** tratamenduak edo kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalen tratamenduak.

Tratamenduaren arduradunek eta tratamendu-eragileek nahitaez izendatu beharko dute datuak babesteko ordezkaria (DPD-DBO). Baina, DBEBz ari garelarik, egun Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legeak ezarritako eskumen esparrua hartu behar da aintzat, eta bigarren artikuluan zerrendatutako “agintaritza eta organismo publikoak” dira behartuta dauden subjektuak:

- a) *Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-organoak, Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioak eta, zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu bazituzten, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoak.*
- b) *Eusko Legebiltzarra.*
- c) *Herri Kontuen Euskal Epaitegia.*
- d) *Arartekoa.*
- e) *Lan Harremanen Kontseilua.*
- f) *Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.*
- g) *Kooperatiben Goren Kontseilua.*



h) Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

i) Ebazpen Batzordea.

j) Interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzeko dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioak.

k) Eusko Legebiltzarrak lege bidez sorturiko beste edozein organismo edo erakundeek -berdin dio nortasun juridikoa duen edo ez-, lege horrek bestelakorik xedatzen ez badu.

Hori guzti hori kontuan izanda, orain arte DBEBren Fitxategien Erregistroan zeunden Entitate eta Organismo Publikoen multzoa hartu da oinarritzat, eta hortik abiatuta eratu eta kontrolatu zein organismok izendatu behar duten nahitaez datuak babesteko ordezkaria (DPD-DBO), indarra jarrita administrazio publikoaren izaera duten erakundeetan, eta bana-banan aztertuta ea horien menpeko edo horiei atxikitako entitateek ere izendatu duten bertako datuak babesteko ordezkaria, ala, kontrara egin duten, hau da, ea administrazio nagusiak izendatutako datuak babesteko ordezkari beraz baliatuko diren.

Era berean, aurreko ekitaldietan egin izan diren azterketei jarraipena emateko asmoz, egoki jo da orain arte Fitxategien Erregistroan erabilitako Entitateen eta Organismo Publikoen (Administrazio Mota) sailkapen bera.

Datuak babesteko ordezkaria izendatzera behartuta dauden Entitate eta Organismo Publikoen kopuruari buruzko laburpena dago ondoko koadroan, bai eta datuak babesteko ordezkaria izendatu dutenena ere bai:

ADMINISTRAZIO MOTA	BEHARTUTAKO ENTITATEAK	ZENBAT DBO IZENDATUTA	DBO %
1-Eusko Jaurlaritza	19	19	% 100,0
2-Erakunde autonomikoak	8	6	% 75,0
3-Foru erakundeak	15	8	% 53,3
4-Udalak	328	109	% 33,2
5-Udalaz gaindiko erakundeak	30	15	% 50,0
9-Beste erakunde batzuk	57	28	% 49,1
Guztira	457	185	% 40,5

Segidan aurkeztuko dugu organismo publikoen multzo bakoitzari buruzko egoera zein den datuak babesteko ordezkariaren figuraren izendapenari dagokionez.



5.3.1. Eusko Jaurlaritzza

Eusko Jaurlaritzak erabaki du pertsona bakar bat izatea EAEko administrazio orokorreko datuak babesteko ordezkaria, eta bere ezarpen eremuan sartu ditu bere menpeko eta berari atxikitako organismo publikoak:

- Eusko Jaurlaritzako sail guztiak.
- EAEko 10 organismo autonomiadunak.
- Zuzenbide pribatuko 8 ente publikoak.

Maiatzaren 22ko 81/2018 Dekretuaren bidez arautu zen: *“Araubide Juridikoaren Sailburuordetza honi, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren datuak babesteko ordezkaria atxikitzen zaio, bere egitura hierarkikoan integratu gabe. Horrek, bere eginkizunak autonomia hierarkiko eta funtzional osoarekin burutuko ditu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera”*.

Datuak babesteko ordezkaria izendatzeko formula berezia erabili da², Dekretuak zera baitio: *“Ordezkarri lanpostua betetzen duena, goi-karguduntzat joko da, zuzendariaren pareko maila edo kategoriarekin. Gobernu Kontseiluak izendatuko du (...), 6 urtebetetarako. Epe hori luzatu ahal izango da beste horrenbesteko epe batean, eta ez da aldatuko baldin eta uko egiten ez badu edo bere eginkizunak betetzean dolo edo zabarkeria larririk egiten ez badu”*.

Bere eginkizunak burutzeko, datuak babesteko ordezkariak laguntza-talde juridiko, teknologiko eta administratiboa izango du; eta, horrez gain, gainbegiratu behar dituen organismo publikoek izendatutako solaskideak (*“Erreferenteak”*) izango ditu, berari laguntza emateko, bakoitzak bere jarduera esparruan.

Datuak babesteko “erreferenteen” jardueraren koordinazio orokorra egiteko, koordinazio organo bat egongo da: Datuak Babesteko Batzordea. Datuak babesteko ordezkaria izango da batzordearen burua. Gainera, lehendik dagoen Segurtasun eta Pribatutasun Batzorde Korporatiboan ere txertatuko da datuak babesteko ordezkaria.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzari lotutako edo menpeko organismo guztiek ez dute eredu bide hori erabili, eta hiruk erabaki dute organismoan bertan izendatzea datuak babesteko ordezkariaren figura.

² Datuak babesteko ordezkaria hornitzeko dauden aukerei buruzko artikulu bat argitaratu du IVAPek “Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkarian” (14. zenbakia), DBEBren idazkari orokorrak idatzita. Bertan aztertzen ditu funtzio publikoaren araudiak juridikoki eskaintzen dituen aukerak.

Ikusi artikulua: “Apuntes sobre el delegado de protección de datos en la administración general de euskadi”. Eskuragarri dago URL honetan: http://www.ivap.euskadi.eus/z16-a3rvop/es/contenidos/informacion/14revgp/es_def/index.shtml



DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA IZENDATZE ERABAKI DUTEN ERAKUNDEAK

UNIBASQ - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia

EITB - Euskal Irrati Telebista Ente Publikoa

EEE - Energiaren Euskal Erakundea

Azpitarratzekoa da datuak babesteko ordezkari korporatiboak gainbegiratzen dituen zuzenbide pribatuko ente publikoen artean Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua dagoela. Kasu berezia da.

Tamaina handiko erakundea da langileen aldetik (25.000 langile baino gehiago) eta tratamenduei dagokienez ere bai (osasun datuak, hau da, datu kategoria bereziak dira). Beraz, bertako tratamendu-jarduerak gainbegiratzea zeregin oso konplexua da, eta espezializazioa eskatzen du. Gainera, erreklamazio kopurua ere handia da bertan. Beharbada, denbora tarte egoki bat pasatutakoan, ikusitakoan nola funtzionatzen duen, tartean dauden administrazio publikoek berriro aztertu beharko dute ea erabaki egokia den. Erakunde bakoitzaren autoantolakuntza ahalarekiko errespetu osoz dio hori DBEBk .

5.3.2. Erakunde Autonomikoak

Erakunde autonomikoen artean, azpitarratzekoa da Eusko Legebiltzarrak zein azkar jokatu zuen datuak babesteko ordezkariaren figura arautzeko orduan; izan ere, Eusko Legebiltzarraren Mahaiak 2018ko martxoaren 27ko saioan hartu zuen datuak babesteko ordezkariaren figura sortzeko eta bere eginkizunak arautzeko erabakia.

Hain azkar ibiltzeagatik jaso zuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoak deitutako Datu Babesaren Sarien VI. edizioko Jardunbide Onenen arloko saria.

Hona datuak babesteko ordezkaria izendatu duten erakunde autonomikoak:

DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA IZENDATU DUTEN ERAKUNDE AUTONOMIKOAK

Eusko Legebiltzarra

Herri Kontuen Euskal Epaitegia

Arartekoa

Lan Harremanen Kontseilua

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Guztira: 6 (% 75)



5.3.3. Foru Erakundeak

Hiru lurralde historikoetako batzar nagusiek eta hiru aldundiek izendatu dute datuak babesteko ordezkaria.

Foru aldundiei lotutako edo horien menpeko entitateei dagokienez, esan behar da Araban eta Bizkaian aldundiko datuak babesteko ordezkaria arduratzen dela denak gainbegiratzeaz. Gipuzkoak Foru Aldundia dela eta, ez dago argibiderik.

5.3.4. Toki Administrazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioa 251 udalerrrik osatzen dute. Horietako 101ek izendatu dute jada datuak babesteko ordezkaria, gutxienez udal administrazioa gainbegiratzeko. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko hamar udaletik lauk (% 40,2) jada izendatu dute bertako datuak babesteko ordezkaria, eta Bizkaia da nabarmentzen dena, udalerri erdiek izendatu dutelako (% 50,0).

Hona sailkapena lurraldeen arabera:

LH	Udalak	DPD-DBO	%
Araba	51	15	% 29,4
Bizkaia	112	56	% 50,0
Gipuzkoa	88	30	% 34,1
Guztira	251	101	% 40,2

Aurreko koadroan ez dira zenbatu udal administrazioei lotutako edo menpeko erakundeek egindako datuak babesteko ordezkarien izendapenak: zortzi (8) erakunde autonomiadun bakarrik izan dira. Ez dago irizpide garbirik orokorrean erabili denik argitzeko ea lotutako edo menpeko erakunde horiek gainbegiratzeaz udaleko datuak babesteko ordezkari bera arduratu behar den; ala, kontrakoa, ea bakoitzak bere datuak babesteko ordezkari propioa izendatu behar duen.

Toki administrazioek datuak babesteko ordezkaria izendatzeko orduan aurrean izan duten oztoporik handiena udalerriaren tamaina (populazioa) izan da; izan ere, biztanle gutxiko udalerriek besteek baino giza baliabide eta baliabide material gutxiago izaren dutelako. Ondoko taulan jaso dira udal kopurua eta izendatutako ordezkariak, biztanle kopuruaren arabera:



BIZTANLEAK	UDALAK	DPD-DBO	%
< 500	62	23	% 37,1
500 - 999	39	14	% 35,9
1.000 - 4.999	79	29	% 36,7
5.000 - 9.999	29	13	% 44,8
10.000 - 19.999	23	8	% 34,8
20.000 - 49.999	13	8	% 61,5
50.000 - 99.999	2	2	% 100,0
> 100.000	4	4	% 100,0
Guztira	251	101	% 40,2

Ikusten denez, 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek (Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Getxo eta Irun) izendatu dute jada datuak babesteko ordezkaria; baina, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien artean, bakar-bakarrik heren batek izendatu du ordezkaria.

Esan behar da 5.000 biztanle baino gutxiagoko toki erakundeen multzo honek zailtasun objektibo batzuk dituela datuak babesteko ordezkaria izendatzeko, hain zuen ere figura horrek dituen berezitasunengatik: batetik, trebetasun profesionala, eta, bestetik, datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak burutzen dituzten pertsonen ezaugarriak independentzia eta interes gatazkarik eza izan behar direla.

Halakoetan banan banako irtenbideak topatu behar dira datuak babesteko ordezkaria izateko erraztasunak bilatze aldera, adibidez honakoak:

- Foru aldundiak ematea datuak babesteko ordezkariaren zerbitzuak, udal txiki horietako beste hainbeste zerbitzu batzuekin egiten duten bezala, adibidez, administrazio elektronikoarekin; hala xedatzen duelako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikulua.
- Udalaz gaindiko datuak babesteko ordezkariak eduki daitezke, udal txiki batzuei modu mankomunatuak edo partzuergo eran zerbitzua emateko, lehendik dauden udalaz gaindiko entitateak baliatuta.
- Kanpoko zerbitzuen kontratuak baliatzea halako zerbitzuak emateko.

Ondorioz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak arreta jarriko du halako kolektiboetan, ahalik eta azkarren erregularizatu dezaten egoera, datuak babesteko ordezkariari dagokionez, eta bat izan dezaten eskuragarri.



5.3.5. Udalaz Gaindiko Erakundeak

Hasteko, DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan zeuden udalaz gaindiko entitateak (batez ere, partzuergoak, mankomunitateak eta kuadrillak) erabili dira. Guztira hogeita hamar (30) entitate dira: Memoria hau ixteko unean, horietatik % 50ek jakinarazi dute datuak babesteko ordezkaria izendatu dutela. Honako hauek dira:

DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA IZENDATU DUTEN UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK
Arabako Errioxako Uren Partzuergoa
Bizkaiko Garraio Partzuergoa
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Bizkaiko Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa
Durango Merinaldearen Aankomunazgoa
Txorierriko Udal Euskaltegia
Enkarterriko Udalen Mankomunitatea
Uribe Kostako Zerbitzu-Mankomunitatea
Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoa
Busturia-aldeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoa
Urola Kostako Mankomunitatea
Debagoieneko Mankomunitatea
Bidasoa Txingudi Mugaz Gaundiko Partzuergoa
Haurreskolak Partzuergoa
Saiaz mankomunitatea
Guztira: 15 (% 50)

5.3.6. Beste organismo batzuk - Elkargo profesionalak

Elkargo profesionalak zuzenbide publikoko korporazioak dira eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoren 34.1 a) artikulua berariaz xedatzen du datuak babesteko ordezkariaren figura izendatu behar dutela nahitaez. Memoria hau ixteko unean, 28 elkargo profesionalak jakinarazi dute datuak babesteko ordezkaria izendatu dutela. Gutxi gorabehera elkargoen erdia dira, DBEBko Datuak Babesteko Erregistroaren arabera.

5.3.7. Tratamendu-arduradunek datuak babesteko ordezkariarekin duten lotura

